

# Zer da Premium Pack-a?

Kutxabank Etxe Asegurua osatzen eta hobetzen duten estalduren eta zerbitzuen sorta bat da. Pakete bakarra eta itxia da, eta erabat hautazkoa da berori kontratatzea.



## “Eskutrebe” Zerbitzua

Aseguratutako etxebizitzaren mantentze-lan txikiak egiteko profesional bat bidaltzea. Urtean bi zerbitzu sartzen dira, gehienez 3 ordu zerbitzu bakoitzeko.

*Koadroak, gortinak edo lanparak zintzilikatzea, altzariak muntatzea, apalak jartzea edo bainu-osagarriak instalatzea...*



## Filtrazioek eragindako kalteak

Berdin dio tutu batetik edo fenomeno atmosferiko batek eragindako filtrazioa baldin bada.

*Modu progresiboan eta ez istripuz eragindako kalteak; adibidez, euriak eragindako hezetetasun-orban bat (mantentze-faltagatik sortutakoak kanpo geratzen dira).*

## Erantzukizun zibilaren zenbateko aseguratua handitzea



300.000 €-tik 600.000 €-ra (Premium Pack-arekin).

*Arrisku berrien aurrean lasaitasun handiagoa izateko.*

## Sarrailak eta giltzak ordeztzea



Lapurreta ez den beste arrazoi batengatik (adibidez, giltzak galtzea).

*Aseguru-etxeek egindako konponketen % 2 inguru sarrailak ordezkatzeko dira.*


## Urak eragindako kalteen estaldura hobetzea



Hodiek eta ustekabeko uren eta buxaduren isuriak konpontzea, kalterik eragin ez badute ere. Kasu ohikoenak dutxako edo harraskako buxadurak izaten dira.

*“Dagoeneko ez da beharrezkoa etxebizitza urez blai geratzea Aseguru-etxeak lagun diezadan”.*

## Kristal, beira eta ispiluen ustekabeko hausturaren estaldura hobetzea



Merkatuan dauden bainuetarako eta sukaldeetarako material berriak barne sartzen dira: zuntzeko dutxa-platerak, metakrilatozko manparak...

*Gero eta ohikoagoak dira loza, marmola eta beira ez diren materialak.*

## Kalte estetikoaren zenbateko aseguruaren muga handitzea



1.800 €-tik (Premium Pack-ik gabe) 4.800 €-ra (Premium Pack-arekin). Kalte batek azalera txiki bati eragiten dionean, baina arrazoi estetikoengatik azalera askoz handiagoa aldatzea behartzen duenean.

*Adibidez, egongela bateko oholtzei edo sukaldeko alikatatzeari eragiten dieten ezbeharrak.*